



## ALKATEEN AUKERAKETA ZUZENERAKO PROPOSAMENAREN AURREAN

### MOZIOA

Herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izanik, Udalen jarduera ireki, zabal eta demokratikoan sakontzea, eguneroko ariketa izan beharko litzateke. Hauteskunderen aurretik, egunean bertan eta ondoren ere, Udalek herritarren borondatearen ispilu izan behar dute. Aldi berean, gainerako interes partidista, ekonomiko eta finantzarioren gainetik, herritarrenganako zerbitzua eta konpromisoa izango dira etengabe, Udal politika ezaugarrituko duten adierazleak.

Baina gure Udalek aurrekinik gabeko erasoak jaso izan dituzte azken urteetan. Europatik proposatu eta Madriletik inposatu dituzten murrizketen gauzapearen bidez, ahalmen politikoak eta ekonomikoak erabat mugatu zaizkie Udalei, lehendik larria zen egoera; oraindik ere larriago bilakaturik. Madriletik inposatu nahi izan zaizkigun neurri horiek guztiek, udalen autonomia suntsitzeaz gain, Udalen eskuetan dauden baliabideak esku pribatuetara bideratzeko ate guztiak irekitzen saiatu dira. Eredu publikoa eta herritarra ahulduz eta era berean eremu pribatuan mugitzen diren enpresak indartzuz. Azken urteetako udalen jarduera eredu, berez ahula izanik ere, errotik okerrera aldatu nahi izan da Madrilgo Gobernutik.

Behin eta berriz, Hego Euskal Herriko instituzio guztiek, udalen autonomia indartzearen beharra eta udalak herritarrengana gerturatzeko neurriak aldarrikatu arren, Madriletik entzungor egin zaigu eta inposaketarekin erantzun zaigu.

Azken urte hauetan neurri hauek bultzatu eta udalen eskumen politikoak murriztu dituen PP alderdia, alkatearen aukeraketa zuzenerako proposamen batekin datorkigu. Oraindik osotasunean ezagutzen ez baldin bada ere, alkatea zuzenean zerrendarik bozkatueneko zerrendaburu izendatzeko proposamena jarri da mahaiaren gainean. Udal hauteskundeetarako hilabete gutxi falta diren honetan, nagusiki PP-ren alderdi interesei erantzuten dien proposamen baten aurrean gaude. PP-k ohikoa duen bezala eta beste behin ere, inoren iritzia kasurik egin gabe (eta bereziki Euskal Herriko udal eta toki erakundeetatik egiten diren aldarrikapenak kasurik egin gabe) ari da urratsak ematen. Bere interes politiko alderdikoi eta zentralistak inposatu nahi ditu gure udaletan, herritarren gehiengoaren iritzia alde batera utzita. Alkatetza eta Udal Gobernuak, herritarren gehiengoaren borondatea ordezkatu behar dute. Alkatearen erreferentzia garrantzitsua da, baina ez eredu presidentzialista baten arduradun gisa, herritarren gehiengoaren ordezkari gisa baizik.

Hauteskunde Legearen aldaketa sakon bat behar dela uste dugu. Baina ez alderdi bataren edo bestearen interesak defendatzeko, baizik eta Euskal Herriarrok gure udal eta instituzio egitura nolakoa izan behar duen erabakitzeak aukera izateko. Gure udaletan demokraziari ateak irekitzeko, jarrera presidentzialista eta autoritarioak alde batera uzteko eta herritarren hitzak udaletan zuzenean indarra izan dezan. PP-k aurkeztu duen proposamenaren kontrako norabidean egin behar dira aldaketak.

Hau guztia kontuan izanik, Lasarte-Oriako Udalak, honako puntu hauek onartzen ditu:

1.- Udal honek, Madrilgo Gobernutik PP-k alkatea zuzenean zerrendarik bozkaturiko zerrendaburua izendatzeko burutu nahi duen Lege Aldaketaren aurkako jarrera adierazten du. Udal eta herritarren interesen gainetik, PP ren alderdi interesei erantzuten dielako. Norabide horretan, udal honek, interes alderdikoiek sustaturiko Hauteskunde Legearen edozein aldebakarreko aldaketa errefusatzen du.

2.- Udal honek, Euskal Herriko udal eta toki entitaten borondatea errespetatu eta gure egitura instituzionala inposaketa eta murrizketarik gabe, Euskal Herritarren beharren arabera antolatzeko eskubidea aldarrikatu nahi du.

3.- Udal honek, bere jardueran herritarren parte-hartzea eta demokrazia zuzenerako tresnak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, udalaren osaketan ez ezik udaleko erabaki garrantzitsuenen aurrean ere.

4.- Udal honek, ebazpen honen berri, herritarrei eta Madrilgo Gobernuari emateko erabakia hartzen du.

**Lasarte-Orian, 2014ko irailaren 5a**  
**EH BILDU**